



1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

1.1. Sarrera.

OSAKIDETZA, Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa da, eta ekainaren 26an onartutako Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak sortu zuen.

Zerbitzu sanitarioen prestazioa du helburu, Osakidetzaren menpe dauden zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoen bidez.

Osakidetzak hurrengo egitura du gaur egun:

Zuzendaritza Nagusia.
Larrialdiak.
Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa.
Araba ESla
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa ESla
Donostialdea ESla.
Goierri-Urola Garaiko ESla.
Bidasoa ESla.
Debabarrena ESla.
Debagoiena ESla.
Tolosaldea ESla.
Bilbo-Basurtu ESla.
Barrualde – Galdakao ESla.
Uribe ESla.
Barakaldo-Sestao ESla.
Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESla.
Santa Marina Ospitalea.
Gorlizeko Ospitalea.
Arabako Osasun Mentalaren sarea.
Bizkaiko Osasun Mentalaren sarea.
Gipuzkoako Osasun Mentalaren sarea.

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

1.1. Introducción.

OSAKIDETZA, Ente Público de Derecho Privado, fue creado por la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

Su objetivo o finalidad es la provisión de servicios sanitarios a través de las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del mismo.

Osakidetza tiene en la actualidad la siguiente estructura:

Dirección General.
Emergencias.
Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.
OSI Araba.
OSI Arabako Errioxa / Rioja Alavesa.
OSI Donostialdea.
OSI Goierri-Alto Urola.
OSI Bidasoa.
OSI Debabarrena.
OSI Alto Deba.
OSI Tolosaldea.
OSI Bilbao-Basurtu.
OSI Barrualde-Galdakao.
OSI Uribe.
OSI Barakaldo-Sestao.
OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces.
Hospital Santa Marina.
Hospital de Gorliz.
Red de Salud Mental de Araba.
Red de Salud Mental de Bizkaia.
Red de Salud Mental Gipuzkoa.

Osatek (Sozietate Publikoa).

Osatek (Sociedad Pública).

ESI – Erakunde Sanitario Integratua

Osakidetzak erakunde sanitario integratuen ereduaren aldeko apustua egiten du, laguntza-prozesuak bateratuz pazienteen osasun-emaizak hobetzeko. Bateratze horri esker, erakunde osoari koherentzia handiagoa ematen dio, koordinazioa areagotzen du eta erakundearen sinergiak baliatzen ditu. Azken finean, zahartzearen, kronikotasunaren eta mendekotasunaren erronkei erantzuteko tresnarik onena da.

Gure erakundeak, azken urte hauetan, kultura-aldaketa betean murgilduta daude, biztanleen gaur egungo beharrezanekin bat datorren kalitatezko laguntza eskaini ahal izateko.

Zehazki, Osasun Sailak ezarritako estrategiari jarraikiz, Osakidetza arreta integratua hobetzen ari da, bi lan-ildoren bitartez:

Alde batetik, erakunde sanitario integratuen funtzionamendua sendotzea –gobernu-egitura bakarra dute, bai ospitale-arretari dagokionez, bai lehen mailako arretari dagokionez–.

Beste aldetik, integrazio kliniko-funtzionala –funtsezko tresnetako bat bi arreta-mailen artean laguntza-ibilbideak sortzea da–. Hori guztia, biztanleen osasun-emaizak hobetzearen ikuspegitik.

Aipatutako planteamendu honen barruan, eta kontuan izanik Lehen Mailako Arreta dela pertsonen eta komunitatearen osasun-arazo gehienak konpontzera bideratutako asistentzia, datozen urteetan beharko du kudeaketaren beste ikuspegi bat integrazio kliniko ematera begira egongo dena eta populazio-ikuspegia gobernantza-sistema berri baten bidez, lehen mailako arretarako estrategia berri bat arautu beharko da eta da oinarritzko dokumentua 2018an jorratu dena izango da bere hasierako gunea.

Era berean, osasun komunitarioa garatzea komunitateko agente anitzekin sinergiak bilatuz, sektoreen arteko osasun-eredu batean sakontze aldera, lehentasunezko helburu bat da. Horregatik, 2019ko aurrekonturako, Lehen Mailako Arretako Estrategia hedatzea begitantzen da; bertan, figura berriak txertatzea aurreikusten da, helburu hori indartzen laguntzeko asmoarekin.

OSI – Organización Sanitaria Integrada

La apuesta de Osakidetza por el modelo de organizaciones sanitarias integradas responde al objetivo de mejorar los resultados de salud en los pacientes mediante la integración de los procesos asistenciales, dando una mayor coherencia, coordinación y aprovechando las sinergias que la organización tiene en su conjunto. En definitiva, constituyen el mejor instrumento para dar la mejor respuesta a los retos del envejecimiento, la cronicidad o la dependencia.

Nuestras organizaciones en estos últimos tiempos están en pleno cambio cultural, a fin de prestar una asistencia con calidad y acorde a las necesidades actuales de la población.

En concreto, siguiendo la estrategia establecida por el Departamento de Salud, Osakidetza está avanzando hacia una mejora de la atención integrada que se desarrolla mediante dos líneas de trabajo:

Por un lado, la consolidación del funcionamiento de las organizaciones sanitarias integradas, que recogen una única estructura de gobierno tanto para la atención hospitalaria como para la atención primaria.

Por otro lado, la integración clínico-funcional donde uno de los instrumentos fundamentales lo constituye la creación de rutas asistenciales entre los dos niveles de atención, todo ello desde un enfoque de mejorar los resultados en salud de la población.

Dentro de este planteamiento citado, y habida cuenta que la Atención Primaria es el nivel asistencial que presta una asistencia encaminada a resolver la mayoría de los problemas de salud de las personas y la comunidad, va a requerir los próximos años de un nuevo enfoque de la gestión orientado a facilitar la integración clínica y el enfoque poblacional mediante un nuevo sistema de gobernanza, siendo necesario articular una nueva estrategia para la atención primaria siendo su núcleo inicial el documento base que a lo largo del ejercicio 2018 ha sido elaborado.

Asimismo, el desarrollo de la salud comunitaria mediante la búsqueda de sinergias con los numerosos agentes comunitarios, para profundizar en un modelo de salud intersectorial constituye un objetivo prioritario, por lo que para el presupuesto de 2019 se contempla el despliegue de la Estrategia de Atención Primaria, que prevé la incorporación de nuevas figuras para contribuir a reforzar dicho objetivo.

Bestalde, sektore soziosanitarioarekiko koordinazioan sakontzen jarraitzearen garrantzia nabarmendu behar da. Azken urteetan, hainbat arlotan aurrerapenak egiten ari dira, biztanleei gehiago erreparatuz eta ikuspegi integratzailearekin; besteak beste, informazio-sistema partekatuen eta balorazio-tresna adostuen erabileran.

Azken finean, gaur egun finkatuta eta indartuta dagoen erakunde sanitario integratuen eredua gure erakunde sanitario integratuetako bakoitzak esleituta duen norabidean –biztanleei erreparatzea eta biztanleen osasunaren inguruko ikuspegi arduratsu eta pertsonalizatua edukitzea– oinarritutako askotariko ekintzak egiteko tresna onenetakoa da.

1.2. Gizarte-funtsa.

Gizarte-funtsa honela banatzen da:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAPV	100
GUZTIRA TOTAL	100

1.3. 2019ko ekitaldiko helburuak.

2019ko ekitaldiko helburuak zehazteko, Gobernuak legegintzaldi honetarako duen konpromisoa hartu da oinarritzat eta, sustatzen dituen politika orokorren barruan, pertsonen osasun eta ongizateak Gobernuaren ekintza politikoaren lehentasun handienetako bat izaten jarraitzen dutela berresten da.

Halaber, helburu horiek Osasun Sailak XI. Legegintzaldirako ildo orokorretan garatutako eskemaren barruan sartzen dira. Eskema hori Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020: Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura osasun-planean jasota dago – Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien konpromisoan oinarrituta euskal osasun-sistema indartzeko konpromisoaren ibilbide-orria markatzen du–, baita Osakidetza 2017-2020rako Erronka eta Proiektu Estrategikoetan ere.

2019ko ekitaldiko helburuak aurrez aipaturiko kultura-aldaketan sakontzen jarraitzea bideratuta daude, eta laguntza integratzailearen garrantzia azpimarratzen da.

En otro orden de cosas, es necesario destacar la importancia que tiene continuar profundizando en la coordinación con el sector socio-sanitario. La utilización de sistemas de información compartidos y de herramientas de valoración consensuados son algunos de los campos en los que se están obteniendo avances estos últimos años, con una perspectiva más poblacional e integradora.

En definitiva el modelo de organización sanitaria integrada cuya consolidación y reforzamiento es hoy una realidad supone uno de los mejores instrumentos para desarrollar multiplicidad de acciones con una orientación poblacional y un enfoque responsable y personalizado en torno a la salud de la población que cada una de nuestras organizaciones sanitarias integradas tiene asignada.

1.2. Fondo Social.

El Fondo social se distribuye de la forma siguiente:

1.3. Objetivos del ejercicio 2019.

La elaboración de los Objetivos para el ejercicio 2019, responden al compromiso del Gobierno para esta legislatura en el que dentro de las políticas generales promovidas se ratifica que la salud y el bienestar de las personas sigue siendo una de las máximas prioridades de su acción política.

Asimismo dichos objetivos se enmarcan en el esquema desarrollado en las Líneas Generales del Departamento de Salud para la XI Legislatura, en el Plan de Salud: Políticas de Salud para Euskadi 2013-2020: Osasuna, Pertsonen Eskubidea Guztion Ardura que marca la hoja de ruta en el compromiso de fortalecer el sistema sanitario vasco con el compromiso de todas las personas que viven en Euskadi e, igualmente, en los “Retos y proyectos Estratégicos de Osakidetza 2017-2020.”

Los objetivos para el ejercicio 2019 están orientados a seguir profundizando en el cambio cultural mencionado anteriormente, en el que se incide en la Integración asistencial.

Horretarako, ikuspegi orokor batetik, tresna eta elementu erraztaile erabili dira, hala nola estratifikazioa, historia kliniko bakarra, pazientea ahalduntzea, elkarlana sozio-sanitarioa, ESlen (erakunde sanitario integratuen) finkapena, lidergo klinikoa eta kudeaketakoa eta ibilbide asistentzialak eta Lehen Mailako Arreta indartzea, garrantzitsuenetako batzuk aipatzeagatik.

Ekitaldi berri honetarako helburuak honako behar hauek aintzat hartuta planteatu dira:

1.-Arretagune nagusia gaixotasunaren orde osasuna izateko ikuspuntu-aldaketan sakontzeko beharra.

2.-Osakidetzak herritarrei aldaketa demografikoaren araberako erantzuna eman beharra, populazioa zahartuago dagoela, osasun-arazo kroniko gehiago dituela eta, horrekin batera, zainketari dagokionez mendekotasun handiagoa duela kontuan hartuz.

3.-Sistemaren iraunkortasuna bermatu beharra, eskaerari erantzuten jarraitzeko eta osasun-zerbitzu publiko, unibertsal eta kalitatezkoa izaten jarraitzeko formulak bilatuz eta baliabideak optimizatuz.

Zahartzearen, kronikotasunaren eta mendekotasunaren erronkekin lerrotuta, Osakidetzak Eibarko Ospitalea martxan jartzea bultzatu du. 2019an ekimen hori sendotu egingo da, pixkanaka egonaldi ertainerako eta luzerako ospitaleratze-unitateak irekita. Azpiegitura horrekin batera, Lehen Mailako Arretaren esparruko beste inbertsio-jarduketak batzuek ere nabarmentzen dute Osakidetzak lortu dituen kalitatea eta pertsonetik hurbiltasuna egunetik egunera hobetuko dituen zerbitzua emateko erabakitasuna duela.

Era berean, itxaron-zerrendak hobetzeko plana garatzen jarraituko dugu. Zerrenden kudeaketa gure osasun-sistemako esparru oso garrantzitsua da, herritarrengan duen eraginagatik eta gogobetzearen pertzepzioan duen inpaktuagatik. Ildo horretan, helburu orokorra itxaron-zerrendak finkatutako erratioetatik behera egotea da.

Osakidetzak euskal herritarren osasuna hobetu eta babesten laguntzeko konpromiso saihestezina du gizartearekin, esparru guztietan islatua, bere eginkizunaren definiziotik bertatik hasita osasun-zerbitzu publikoen hornidurara. Konpromiso hori unibertsaltasun, elkartasun, berdintasun, kalitate, gardentasun eta herritarren parte-hartzean oinarrituta gauzatzen du, kudeaketa jasangarri eta berritzaile baten bitartez. Horretarako, kualifikazio handiko profesionalak ditu eta bai pazienteen bai osasun-arloko askotariko eragileen laguntza bilatzen du.

Para ello, desde una perspectiva general se han utilizado diversas herramientas y elementos facilitadores como son la estratificación, la historia clínica única, el empoderamiento del paciente, la colaboración socio-sanitaria, la consolidación de OSI's (organizaciones sanitarias integradas), el liderazgo clínico y de gestión y las rutas asistenciales y, el refuerzo de la Atención Primaria, por citar algunos de los más relevantes.

El planteamiento de los objetivos para este nuevo ejercicio trata de ahondar en actuaciones orientadas a:

1- La necesidad de seguir profundizando en el cambio de perspectiva de la enfermedad y contemplar la salud como el principal centro de atención.

2- La necesidad de adaptar y adecuar la respuesta que Osakidetza debe de dar a la ciudadanía acorde al cambio demográfico, con una población más envejecida con un mayor número de problemas de salud crónicos, y, ligado a ello, una mayor dependencia en sus cuidados.

3- Garantizar la sostenibilidad del sistema buscando fórmulas y optimizando los recursos con el objetivo de seguir dando una respuesta a la demanda y mantener un Servicio de Salud público, universal y de calidad.

Alineada con los retos de envejecimiento, cronicidad y dependencia, Osakidetza ha impulsado la puesta en marcha del Hospital de Eibar, que en 2019 quedará afianzada con la progresiva apertura de las unidades de hospitalización de media y larga estancia. Junto con esta infraestructura, otra serie de actuaciones inversoras en el ámbito de la primaria remarcan la determinación de Osakidetza de prestar un servicio que, día a día, supere los niveles de calidad y cercanía a las personas ya alcanzados.

Asimismo, seguiremos desarrollando el Plan de mejora listas de espera cuya gestión constituye un ámbito de gran importancia en nuestro sistema sanitario por la repercusión que tiene en la ciudadanía y el impacto que genera en la satisfacción percibida. En este sentido, el objetivo general es mantener las listas de espera por debajo de los ratios establecidos.

Osakidetza manifiesta su ineludible compromiso con la sociedad desde la definición de su misión a proveer de los servicios sanitarios públicos para contribuir a la mejora y protección de la salud de la población vasca bajo los principios de universalidad, solidaridad, equidad, calidad, transparencia y participación ciudadana, a través de una gestión sostenible e innovadora, contando para ello con la alta cualificación de sus profesionales y buscando la colaboración del paciente y de los diferentes agentes de salud.

Halaber, gizarteari erantzuteko konpromisoa ere badu; gero eta osasun-espektatiba handiagoak dituen, informatuago dagoen eta baliabide publikoen kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa eskatzen dituen gizarteari, hain zuzen.

Horregatik, aldaketa soziodemografikoak, familia-egituren aldaketak eta teknologia medikoen garapenak dakarren gastu-igoera bistatik galdu gabe, Osakidetza kudeaketa-metodoak berritzeko ardura bere gain hartzen du, Euskadiko osasun-sistema osoaren iraunkortasuna bermatzeko.

Hala, pertsonak dira deskribatutako printzipioetan oinarritutako sistemaren ardatz nagusia. Sistema horrek, pertsonen osasun-beharrak asebate ahal izateko, efizientzia-maila gorenak lortzea bilatzen du. Horretarako, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzen ditu eta sistema emaitzak lortzera bideratzen du, euskal gizartearen eta beren buruen aurrean beren jardueren gaineko ardura duten erakundeak eta profesionalak garatuta.

Bere ildo propioei jarraikiz, hainbat erakundetako gizarte-ongizateko sailekin elkarlanean ari da Osakidetza, osasun-beharrizanei era koordinatuan erantzuteko eta esparru sozial eta sanitarioko sektoreetan dauden eragileen artean ekintza bateratuak adostu eta gauzatzen ditu, arreta sanitario eta soziosanitario osoa eskaintzeko, herritarren onurarako.

Laburbilduz, bere helburu guztiak lortzeko, Osakidetza legegintzaldi honetarako definitutako sei ildo orokorrak garatuko ditu. Ildo horiek honela jasotzen dira Osakidetza 2017-2020rako Erronka eta Proiektu Estrategikoetan:

1. Pertsonak eta osasun-emaitzak arretaren ardatz.
2. Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea.
3. Integrazio asistentziala eta kronikotasuna.
4. Profesionalak kudeaketa korporatiboaren kultura sortzen.
5. Kudeaketa aurreratu jasagarria eta sistema sanitarioaren modernizazioa.
6. Berrikuntza eta ikerkuntza.

Y también está comprometida a dar respuesta a una sociedad con mayores expectativas en relación con su salud, cada vez más informada y con una mayor exigencia con respecto a la eficacia y a la eficiencia en la gestión de los recursos públicos.

Por ello, sin perder de vista los cambios socio-demográficos, y las estructuras familiares, así como el incremento de gasto provocado por el desarrollo que las tecnologías médicas exigen, Osakidetza asume la responsabilidad de innovar en los métodos de gestión para garantizar la sostenibilidad del conjunto del Sistema de Salud de Euskadi.

De esta manera, se prioriza a las personas como eje central del sistema, un sistema basado en los principios descritos, que aspira a lograr los máximos niveles de eficiencia que permitan satisfacer las necesidades de salud de las personas, promoviendo la innovación y la mejora continua y orientando el sistema a la obtención de resultados desarrollando organizaciones y profesionales con responsabilidad hacia sus actuaciones ante la sociedad vasca y ante ellos mismos.

Siguiendo sus propias directrices, Osakidetza trabaja para dar respuesta a las necesidades de salud coordinadamente con las áreas de bienestar social de las distintas Instituciones acordando y desplegando acciones conjuntas entre los actores implicados de los sectores sanitarios y sociales, para prestar una atención sanitaria y socio sanitaria sin fragmentaciones y en beneficio de las personas.

En síntesis, para alcanzar todos sus objetivos Osakidetza trabajará desarrollando las seis Líneas Generales definidas para esta legislatura, cuya materialización en los Retos y Proyectos de Osakidetza 2017-2020 son los siguientes:

1. Atención centrada en la persona y resultados en salud.
2. Promoción de la salud y prevención de la enfermedad.
3. Integración asistencia y cronicidad.
4. Profesionales construyendo una cultura de gestión corporativa.
5. Gestión avanzada sostenible y modernización del sistema sanitario.
6. Innovación e Investigación.

2019ko helburuak Osakidetza plan estrategiko berri honen eskemari jarraituz aurkezten dira –Administrazio Kontseiluak 2017ko abenduaren 5eko saioan onartu zuen plana–. Planean, aipatutako 6 erronkak daude, 32 proiektutan banatuta. Proiektu horien barruan, edukia ilustratzeko eta argitzeko, planaren lau urteko indarraldian garatzekoak diren ekintza esanguratsuenak aipatzen dira. Hala ere, planaren ebaluazioak eta berrikuspenak egiten direnean, ekintza horiek erronka eta proiektuetara egokitzen joan ahal izango dira, ekintza berrien bitartez, eta hala, daudenak aldatu edo indartu daitezke; gerta daiteke baten bat bukatuta egotea ere.

Proiektuekin lotuta, 133 adierazle aukeratu dira, 2019an aurrekontu honen bitartez lortu beharreko erronkekin batera. Neurri batean, aipatutako plana ondoen ordezkatu eta haren egoera estimatzea ahalbidetzen dutenak dira, eta horiei esker, hartutako konpromisoak ebaluatu eta horien etengabeko jarraipena egin ahal izango da.

Jarraian, 2019ko aurrekontu-ekitaldian garatzekoak diren helburuei dagozkien auzi adierazgarrienak azalduko ditugu:

Pazientea bere osasunarekin lotutako alderdi guztietan inplikatzeko paziente aktiboaren eta, oro har, paziente ahalduntzeko programen bitartez landu beharreko xedeetako bat da. Beraz, Paziente Aktiboa programaren garapena indartzen jarraituko dugu. Horrez gain, tokiko osasun-sareak sendotzen eta zabaltzen jarraituko dugu, Lehen Mailako Arreta, Osasun Publikoa, udalak eta tokiko sektore eta elkarteak partaide direla. Beste alde batetik, Osasun Karpeta indartzea pazienteei eta, oro har, herritarrei, Osakidetzarekin duten harremana errazteko tresna bat izango da aurrerantzean ere.

Kontutan izan behar da herritarrek direla aliatu nagusiak prozesu sanitario konplexu honen barruan; hori dela eta, beren osasunean ahalduntzera bideratu behar dira indar gehienak.

Halaber, hobetsitako hizkuntza ofizialean arreta ematea, prestazio eta zerbitzu elebidunen kopurua handitzea eta profesionalen hizkuntza-prestakuntza bultzatzea izango dira landu beharreko beste ildoetako batzuk; izan ere, azken finean, horrek guztiak pertsonen ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen du.

2018an egindako lanen ondoren, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bultzatzeko eta genero-ikuspegia erakundearen esparru guztietan txertatzeko erronkak Osakidetza Berdintasun Plana onartu eta indarrean jartzeko konpromisoa hartzea garrantzitsua da.

Osakidetza, Pazientearen Segurtasun Estrategia 2020 berriari jarraituz, aurretik dauden ekintza-lerroetan sakontzen eta proiektu adierazgarri berriak garatzen jarraituko du.

La presentación de los objetivos 2019 se realiza siguiendo el esquema de este nuevo Plan Estratégico de Osakidetza, aprobado por el Consejo de Administración, en su sesión de 5 de diciembre de 2017, que contempla los 6 Retos mencionados desglosados a su vez en 32 Proyectos. Dentro de estos Proyectos, y con la finalidad de ilustrar y clarificar el contenido de los mismos, se señalan las acciones más relevantes a desarrollar a lo largo de los cuatro años de vigencia del Plan, sin perjuicio de que en las sucesivas evaluaciones y revisiones de dicho Plan se vayan ajustando a los Retos y Proyectos a través de nuevas acciones, modificando o reforzando las existentes, pudiendo darse la circunstancia de que algunas estén concluidas.

Vinculados a los Proyectos se han seleccionado 133 indicadores con los retos a alcanzar en el ejercicio 2019 a través del presente presupuesto y que son los que, en alguna medida, mejor representan y permiten estimar la situación del mencionado Plan, ayudando a evaluar y realizar un seguimiento permanente de los compromisos adquiridos.

A continuación, se exponen las cuestiones más relevantes correspondientes a los objetivos a desarrollar en el ejercicio presupuestario 2019:

La implicación del paciente en todo lo concerniente a su salud constituye una meta a trabajar mediante los programas de paciente activo y empoderamiento del paciente en general, por lo que seguiremos reforzando el desarrollo del Programa Paciente Activo. También se seguirá consolidando y extendiendo las redes locales de salud con la participación de Atención Primaria, Salud Pública, los Ayuntamientos y sectores y asociaciones locales. Por otra parte, la potenciación de la Carpeta de salud continuará siendo un instrumento facilitador para los pacientes y la ciudadanía en general en sus relaciones con Osakidetza.

Hay que tener en cuenta que la ciudadanía es el principal aliado en todo este complejo proceso sanitario, por lo que gran parte de los esfuerzos han de estar destinados a su empoderamiento en salud.

También la atención en la lengua oficial de preferencia así como el incremento de las prestaciones y servicios bilingües o el impulso de la capacitación idiomática de los profesionales serán otras de las líneas a trabajar porque, en definitiva, todo ello contribuye a mejorar la calidad del servicio prestado a las personas.

Tras los trabajos desarrollados a lo largo de 2018, el reto de impulsar la igualdad entre mujeres y hombres y de integrar la perspectiva de género en todos los ámbitos de la Organización nos lleva a asumir el compromiso de aprobar y desplegar el Plan de Igualdad en el seno de Osakidetza.

Osakidetza, conforme a la nueva Estrategia de Seguridad del Paciente 2020, continuará profundizando en las líneas de acción existentes y desarrollando nuevos proyectos relevantes.

Laguntzaren eskuragarritasunaren arloan, hobekuntza-planean jasotako konpromisoaren barruan, zerbitzu-erakunde integratuetan praktika klinikoak egokitzeko batzordeak sortzea bultzatuko da, praktika klinikoak egokitzeari buruzko ekimenak jarriko dira indarrean eta laguntzaren emaitzak ebaluatzeko proiektuak garatzen joango dira, pazientearen osasunaren eta bizikalitatearen inguruko emaitzak barne hartuta.

Osasuna sustatzeko eta gaixotasunak saihesteko esparruari dagokionez, osasun-hezkuntzako proiektu berrietan lan egiten jarraitzeaz gain, biztanleriari zuzendutako prebentzio-programen estalduraren jarraipena egingo da.

Hain zuzen ere, prebentzioaren lan-esparruarekin lotuta, existitzen diren programei eusteaz gain, zerbixeko minbiziaren baheketa garatuko da. Hori 2019an eramango da aurrera, nagusiki.

Laguntzaren integrazioaren eta kronikotasunaren esparruan, populazioaren osasun-arretari eta osasun-emaitzen hobekuntzari eustera begira lan egiten jarraituko dugu. Horretarako, figura batzuk sustatuko dira –adibidez, erreferentziatzeko barne-medikuntzako medikua–, Osabide Global Lehen Mailako Arretan ezarriko da, Osabide Integra tresnak erresidentzia gehiagotan ezarriko dira eta telemonitorizazioaren erabilera-maila handituko da.

Aurrekontu-ekitaldi honetan, onkologiaren esparruak garrantzi berezia izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018-2023rako Onkologia Planean definitutako lan-ildoak jarraituz. Ildo horiek, datozen urteetan, gure gizartean, zalantzarik gabe, oso presente dauden erronka batzuei aurre egiten ahaleginduko dira.

Mina lantzea, arazo kronikoei aurre egiteko biztanleen ezaugarriak kontuan hartzea eta patologia anitzeko pazienteekiko koordinazio-maila handitzea ere lehenetsitakoak izango dira.

Arreta integratuaren eredia indarrean egoteak eta berau sendotzeak eta gaixotasun zehatzak dituzten kolektiboak arreta emateak errealitate profesional berri bat eskatuko duenez, 2019ko ekitaldian lanbide-profil berriak sartzeko asmoa dago.

Ildo horretan, onkologiaren esparruan, lotura-lanak egingo dituzten erizainen sare bat sortuko da. Erizain horiek tumoreen batzordeen barruan egongo dira eta laguntza-prozesuan zehar pazientearen nabigazioaz arduratuko dira, zainketek jarraipena izatea ziurtatzeko eta sortzen diren gorabeheretan pazientearentzako zerbitzu bakoitzean erreferente izateko helburuarekin. Sare hori, gainera, administrazio-egituretako langileekin osatuko da.

En el área de la accesibilidad asistencial, dentro del compromiso recogido en el Plan de mejora se impulsará la creación de Comisiones de adecuación de la práctica clínica en las organizaciones de servicios integradas, se desplegarán iniciativas sobre la adecuación de la práctica clínica y se irán desarrollando proyectos dirigidos a evaluar los resultados asistenciales que incluyan resultados en salud y en la calidad de vida de los pacientes.

En lo que respecta al ámbito de la promoción de la salud y prevención de la enfermedad, se continuará trabajando en nuevos proyectos de Educación para la salud así como se hará un seguimiento de la cobertura de los distintos programas de prevención poblacionales.

Precisamente, y en relación al ámbito de trabajo de la prevención, los programas ya existentes se completarán con el desarrollo del cribado del cáncer de cérvix, cuyo despliegue se llevará a cabo principalmente en 2019.

En el ámbito de la integración asistencial y cronicidad se continuará trabajando bajo una orientación de la continuidad de la atención y mejora de los resultados en salud de la población potenciando figuras como el internista de referencia, la implantación de Osabide Global en atención primaria, el mayor número de residencias con herramientas de Osabide Integra o el mayor grado de uso de la telemonitorización.

Cobrará especial relevancia, en este ejercicio presupuestario, el ámbito oncológico, conforme a las líneas de trabajo definidas en el Plan Oncológico de Euskadi 2018-2023 que, para los próximos años, tratarán de hacer frente a retos que, sin duda, se hallan muy presentes en sociedades como la nuestra.

También cobrará importancia el abordaje del dolor o el enfoque poblacional en el abordaje de los problemas crónicos así como el grado de coordinación paciente pluripatológico serán una prioridad.

El modelo y consolidación de una atención integrada, así como la atención a colectivos con enfermedades específicas, va a requerir de una nueva realidad profesional por lo que en el ejercicio 2019 se pretende incorporar nuevos perfiles profesionales.

En este sentido, en el ámbito de la oncología se creará una red de enfermeras de enlace integradas en los Comités de tumores que sean responsables de la navegación del paciente durante el proceso asistencial con el objetivo de asegurar la continuidad de cuidados y ser referentes para cada servicio para el paciente en las contingencias que pudieran surgir. Esta red se complementará además con personal de estructuras administrativas.

Halaber, Euskadiko Lehen Mailako Arretako estrategiaren barruan, lehen aipatu dugun eta lantzen ari den ikuspegi horrez gain, 2019an, beste neurri batzuen artean, lanean jarraituko da kontratazioaren kalitatea hobetzeko izaera egonkorreko formulen bidez pertsonal medikoaren arloan, kupoak egokitzen, hala behar balitz, eta baliabide gehiago bideratzen pediatriako eta komunitateko erizaintzako arlorako.

Baliabide horiek Lehen Mailako Arreta hobetzera eta indartzera zuzenduta egongo dira, osasuna eta osasun komunitarioa sustatzeko konpromisoaren barruan, esku-hartzeko komunitarioaren garapenari dagozkion jarduerak herritaren ikuspegi batetik indartzeko helburuarekin. Hori dela eta, esku-hartze komunitarioak hedatu nahi dira zerbitzu-erakunde integratuetan, horiek esku-hartze komunitarioaren erreferente izan daitezen, zentroko taldearen beste pertsonen elkarlaneanekin eta osasuneko tokiko sereei dagozkion baliabideak erabiliz.

Aldi berean, arreta pediatrikoko ereduari dagokionez, erizaintza pediatrikoko baliabideak handitu nahi dira, erizaintza pediatrikoko kontsulta garatzearekin batera. Kontsulta hori haur osasuntsuak kontrolatzera, osasun-heziketara eta medikuaren esku-hartzerik behar ez duten arazo jakin batzuk konpontzera zuzenduko da.

Osasun mental integratuaren ikuspegitik, osasun mentaleko sareen, ospitaleen eta Lehen Mailako Arretaren artean egindako patologia psikiatrikoak jorratzeko moduaren inguruko hitzarmenak eta protokoloak bultzatzen jarraituko da.

Preskripzioa modu egokian erabiltzeko, diseinatutako tresna berriak egongo dira, adibidez Onkobide, zeinak diagnostiko onkologikoekin lotutako informazio-, ustiaketa- eta analisi-sistema hobea izaten lagunduko duen.

Gure helburuak aurrera eramateko, erakundea osatzen duten profesionalen jakintza, konpromisoa eta parte-hartzea dauzka Osakidetzak, baita ikerketa eta berrikuntzaren sustapen eta garapena ere.

2019ko ekitaldian, Osakidetzak enplegu publikoaren kalitatearen aldeko apustua egiten jarraituko du, enplegu finkoa sendotzea, behin-behineko lanpostuak estaltzea eta aldi baterako kontratazioaren kalitatea hobetzea lehenetsiz.

Osakidetzaren aktibo nagusia berau osatzen duten profesionalak izanik, oso garrantzitsua da prestakuntzaren kudeaketa-eredu bat garatzea kualifikazio optimoa bultzatzeko.

Horrekin batera, langileak euskalduntzeko prozesuak sustatzen jarraituko dugu, horien lan-kualifikazioa hobetzeko bitarteko gisa, baita erakundeak osasun-laguntzaren kalitatearekin eta herritarren hizkuntza-hautuekin duen konpromisoa betetzeko bitarteko gisa ere.

También, dentro de la estrategia para la Atención Primaria de Euskadi, además del nuevo enfoque en el que se está trabajando ya citado, a lo largo del ejercicio 2019 entre otras medidas, se continuará trabajando por mejorar la calidad de la contratación mediante fórmulas de carácter estable en el ámbito de personal médico, en la adecuaciones de cupos si así fuera necesario y en la implementación de nuevos recursos en el ámbito de la enfermería pediátrica y comunitaria.

Estos recursos estarán destinados a mejorar y reforzar la Atención Primaria, dentro del compromiso con la promoción de la salud y la salud comunitaria, con objeto de reforzar las actividades correspondientes al desarrollo de la intervención comunitaria desde un enfoque poblacional. Por ello, se pretende desplegar las intervenciones comunitarias en las organizaciones de servicios integradas, convirtiéndose en referentes para la intervención comunitaria en colaboración con el resto del equipo del centro y de los recursos correspondientes a las redes locales de salud.

En el mismo sentido, en lo que lo respecta al modelo de atención pediátrica, se pretende aumentar los recursos de enfermería pediátrica de forma paralela al desarrollo de la consulta de enfermería pediátrica orientada al control del niño sano y niña sana, la educación sanitaria, la resolución de determinados problemas que no requieran intervención médica.

Desde la visión de una salud mental integrada se continuará trabajando impulsando los acuerdos y protocolos sobre el abordaje de patologías psiquiátricas realizados entre las redes de salud mental, los hospitales y atención primaria.

El uso adecuado de prescripción contará con nuevos instrumentos diseñados como será Onkobide que permitirá un mejor sistema de información, explotación y análisis en relación con los diagnósticos oncológicos.

Para llevar a cabo nuestros objetivos, Osakidetza cuenta con el conocimiento, compromiso y participación de los profesionales que la componen así como de la promoción y desarrollo de la investigación e innovación.

Durante el ejercicio 2019 Osakidetza seguirá apostando por la calidad del empleo público priorizando la consolidación del empleo fijo, la cobertura de las interinidades y la mejora de la calidad de la contratación temporal.

Siendo los profesionales que la componen el principal activo de Osakidetza, adquiere especial relevancia el desarrollo de un modelo de gestión de la formación como elemento potenciador de una óptima cualificación.

Junto a ello, continuaremos incentivando los procesos de euskaldunización del personal como medio para mejorar su cualificación profesional así como medio para cumplir el compromiso de la Organización con la calidad de la asistencia y con las opciones lingüísticas de la ciudadanía.

Profesionalen esparruan, halaber, aipatzekoa da 2019an deialdi ireki iraunkorra onartzea espero dela, negoziazio-fasearen ondoren, eta Mahai Sektorialean lan-garapenerako deialdi berriak irekitzea negoziatzeko konpromisoa dagoela.

Kudeaketa aurreratu iraunkor baten alde lan egiten jarraituko dugu, baita osasun-sistema modernizatzearen alde ere. Jarduketa klinikoaren eraginkortasuna hobetzeko proiektu korporatiboak garatzen jarraitzeaz gain, laguntza-ibilbide berriak garatuko dira.

Teknologia eta gure teknologia-parkearen berritzea, gaur egun, laguntzaren kalitatea eta osasun-emaizak hobetzeko ekarpen argia egiten duen atal bat da. Ildo horretan, bai azpiegiturretan bai teknologian inbertsio berriak egiteko asmoa dago.

Gainera, ezin dugu ahaztu informazioaren eta komunikazioaren teknologien zabaltzeak osasun-laguntza hobetzeko eta maila eta sistema desberdinen arteko koordinazioa hobea izateko aukera dakarrela, eta hala, sistemaren zatiketaren eragin negatiboak ekiditeko: Osabide Global, E-rezeta, Osasun Karpeta eta telemedikuntza, «urrez aurrekoa ez den» arreta teknologikoko gailu gisa, profesionalen arteko eta herritarrekiko lankidetzak-prozesuak sustatzen laguntzen ari diren tresna sorta horren parte dira.

Zerbitzu-erakundearen egitura horretaz gain, Ikerkuntza eta Berrikuntzaren esparruan, Osakidetzak beste antolaketa-egitura batzuen babesa dauka, adibidez: BIOEF-Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioarena (osasunaren arloko ikerkuntza- eta berrikuntza-zentro korporatiboa), Osasun Sailak eta Osakidetzak I+G+b estrategiak diseinatu eta ezartzeko duten tresna nagusi gisa; Biodonostia, Biocruces Bizkaia eta Bioaraba osasun-ikerkuntzako institutuena (ikerkuntza-zentroak), zeintzuen jarduketa nagusia ikerkuntza biomedikoaren esparruan osasun-arloko I+G+b continuumaren lehen arrakala saihestera bideratutako ikerkuntza transnazionala egitea baita eta Kronikgunerena (ikerkuntza-gunea), zeinaren jarduketa nagusia osasun-zerbitzuen ikerkuntzaren esparruan osasun-arloko I+G+b continuumaren bigarren arrakala saihestera bideratutako ikerkuntza transnazionala egitea baita. Horiek guztiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile akreditatuak dira eta estrategia orokorraren garapenean parte hartzen dute.

2019ko ekitaldian, beste ekintza batzuen artean, inguruko enpresekiko eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileekiko elkarlana indartzen jarraituko da; nazioarteko proiektuak ondo kokatuta egotea lantzen jarraituko da; eragin-faktore altua duten argitalpenak ugaritzea sustatuko da eta Osakidetzan garatutako proiektuen emaitzek ahalik eta translazio onena izatearen aldeko apustua egingo da, praktika klinikoan aplikatu daitezkeen.

También en el ámbito de los profesionales, cabe mencionar la previsión de que quede aprobado en 2019 el concurso abierto y permanente, tras la fase de negociación, y el compromiso para la negociación en Mesa Sectorial de la apertura de nuevas convocatorias del desarrollo profesional.

Seguiremos trabajando por una gestión avanzada sostenible así como por la modernización del sistema sanitario. Además de seguir desarrollando proyectos corporativos para mejorar la eficiencia de la actividad clínica, se desarrollarán nuevas rutas asistenciales.

La tecnología y la renovación de nuestro parque tecnológico constituyen hoy en día un apartado cuya contribución a la mejora de la calidad asistencial y de los resultados en salud es innegable. En este sentido se prevén nuevas inversiones tanto en infraestructuras como en tecnología.

Tampoco podemos olvidar que la eclosión de Tecnología de la Información y comunicación supone una oportunidad para la mejora asistencial, y mejor coordinación entre los diferentes niveles y sistemas evitando las negativas consecuencias de una fragmentación del sistema: Osabide Global, E-rezeta, carpeta de salud, la telemedicina, osaran como dispositivo de atención tecnológica “no presencial”, conforman parte de este conglomerado de herramientas que están ayudando a fomentar los procesos de colaboración tanto entre profesionales como con la ciudadanía.

Además de esta estructura de organizaciones de servicios, en el ámbito de la Investigación e Innovación, Osakidetza cuenta con el apoyo de otras estructuras organizativas como: la Fundación Vasca de Innovación e Investigación sanitaria-BIOEF (Centro corporativo de investigación e innovación en salud) como principal instrumento del Departamento de Salud y de Osakidetza para el diseño y despliegue de las estrategias en I+D+i; los Institutos de Investigación Sanitaria Biodonostia, Biocruces Bizkaia y Bioaraba (centros de investigación) cuya actividad principal es la investigación traslacional orientada a evitar la primera brecha del continuo de I+D+i sanitario, en el ámbito de la investigación biomédica y Kronikgunerena (centro de investigación) cuya actividad principal es la investigación traslacional orientada a evitar la segunda brecha del continuo de I+D+i sanitario, en el campo de la investigación en servicios de salud. Todos ellos son agentes acreditados de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación participan do en el desarrollo de la estrategia general.

Durante el ejercicio 2019, entre otras acciones, se continuará potenciando la colaboración con empresas del entorno y agentes de la red vasca de ciencia y tecnología e innovación; se seguirá trabajando en el buen posicionamiento en proyectos con proyección internacional; se fomentará el incremento de publicaciones con alto factor de impacto y se seguirá apostando por obtener la mejor traslación de los resultados de proyectos desarrollados en Osakidetza para su aplicación en la práctica clínica.

Neurriok kultura-aldaketa bat lortu nahi dute gure herritarren osasunaren kudeaketan, arretaren hobekuntza eta sistema publikoaren jasangarritasuna bermatuz.

Todo este conjunto de medidas tiene como finalidad lograr un cambio cultural en el manejo de la salud de nuestra población garantizando la mejora de la asistencia así como la sostenibilidad del sistema público.

2. 2018KO URTEKO EGINTZA NAGUSIAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2018

2018ko Helburuen betetze-maila, 2018ko ekainaren 30ean.

Grado de cumplimiento de los objetivos 2018 a 30 de junio de 2018:

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. PERTSONAK ARDATZ NAGUSI GISA ETA OSASUN-ARLOKO DESBERDINTASUNAK</p> <p>1.1- Arreta integratuko eredua.</p> <p>1.1.1. Pertsonak ardatz dituen arreta integratuko eredua garatzea.</p> <p>Laguntza-harremanean balio erantsi handiagoko alderdiak jaso ahal izateko landa-azterketa bat egitea falta da, pertsonak ardatz dituen arretaren (PAA) ikuspegiarekin lotutako balioak eta jokabideak definitzeko.</p> <p>1.1.2. Osasun Eskola. Pazienteek beren patologia maneiatzeko duten ahalmena hobetzea.</p> <p>Lehenengo sei hilekoan, 43 ikastaro egin dira (27 orokor, 10 diabetesarekin lotuak, 1 ijito herriarekin, 5 minbiziaren ondorengoarekin).</p> <p>Webgune propioa berriz diseinatu da, 45 partaide (pazienteak, sare sozialetako guruak, enpresa, EHU, Osakidetza profesionalak) izan zituen lan-bileraren ondorioz.</p> <p>Osasun Eskolaren inguruko gogoeta estrategikoa. Hainbat lantalde sortu eta askotariko metodologiak erabili dira, esaterako: elkarrizketak eta foku-taldea pazienteekin, elkarteekin.</p> <p>Pazienteak ahalduntzeko online programa martxan jarri eta ebaluatu da. (200 pazienteko helmena).</p> <p>Lehen online ikastaro generikoa apirilean hasi da.</p> <p>Elkarteen hainbat forotan parte hartu da (Gaixotasun Arraroen Federazioaren Euskal Autonomia Erkidegoko adarra, Euskadiko emakume ijitoen elkartea, diabetesaren inguruko elkarteak...).</p>		<p>1. LAS PERSONAS. COMO EJE CENTRAL Y LAS DESIGUALDADES EN SALUD</p> <p>1.1. Modelo de Atención Integrada.</p> <p>1.1.1. Desarrollo del modelo de Atención Integrada centrada en las personas.</p> <p>Está pendiente de un estudio de campo que permita recoger aspectos de mayor valor añadido en la relación asistencial, para definir los valores y conductas asociadas a la visión de la Atención Centrada en las personas (ACP).</p> <p>1.1.2. Osasun Eskola. Mejorar la capacidad de los pacientes para el manejo de sus patologías.</p> <p>Durante el primer semestre se han realizado 43 cursos (27 Genérico, 10 Diabetes, 1 pueblo gitano, 5 después del cáncer).</p> <p>Rediseño de la propia página web, fruto de la reunión de trabajo con la participación de 45 personas (pacientes, gurús de las redes sociales, empresa, UPV, profesionales de Osakidetza).</p> <p>Reflexión estratégica de Osasun eskola. Creación de diferentes grupos de trabajo y metodologías como entrevistas y grupo focal con pacientes, asociaciones.</p> <p>Despliegue y evaluación del Programa On-line de empoderamiento de pacientes. (Alcance a 200 pacientes).</p> <p>Inicio del primer curso genérico online en abril.</p> <p>Participación en diferentes foros de las asociaciones (Federación de enfermedades raras en Euskadi, asociación de mujeres gitanas de Euskadi, diabetes....).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Apirilaren 17an, Osasun Eskolaren I. Jardunaldia egin da, «Elkarrekin ahaleginduz osasunean ahalduntzeko» izenburupean.</p> <p>Paziente Bizia-Paciente Activo programako monitoreak omentzeko jardunaldi bat antolatu da abenduaren 17rako.</p> <p>1.2. Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programa (BMGDP).</p> <p>1.2.1. Zerbitzu sanitarioen kalitatea bermatzea arreta-epeak bizkortzeko.</p> <p>Erantzun-denbora helburu gisa finkatutakoa baino laburragoa izatea.</p> <p>Adierazlea: Mamografia egiten denetik txostena igorri arteko erantzun-denbora (egunak).</p> <p>Adierazlea: Mamografia egiten denetik berriz baloratu arteko erantzun-denbora (egunak).</p> <p>Adierazlea: Berriz baloratzen denetik erreferentziako ospitaleko hitzordura arteko erantzun-denbora (egunak).</p> <p>Adierazlea: Erreferentziako ospitaleko hitzordutik tratamendua hasi arteko erantzun-denbora (egunak).</p> <p>1.2.2. BMGDParen erradiodiagnostiko-segurtasuna bermatzea.</p> <p>Kalitate Erradiologikoa Bermatzeko Programako irizpideak betetzen direla ziurtatzea:</p> <p>Adierazlea: Mamografoen aldizkako azterketa kopurua. Helburua: 2 «hiru hilean behingo» + 2 «sei hilean behingo».</p> <p>1 hiru hilean behingo berrikuspen eta sei hilean behingo lehenengoa eginak.</p> <p>Adierazlea: BMGDPko mamografo bakoitzak emandako dosien esportazio kopurua.</p> <p>2017. urteko DICOM buruen datu guztiak esportatu dira, sistema pilotatzeko.</p> <p>1.2.3. BMGDParen erabiltzaileen gogobetetze-maila ezagutzeko tresnei eustea.</p> <p>BMGDParen erabiltzaileen bi urtean behingo gogobetetasun-inkesta egiten jarraitzea.</p> <p>Adierazlea: «Erabiltzaileen Gogobetetasun Inkesta 2017» egitea eta ezagutzera ematea.</p>	<p>5,0 EGUN/ DÍAS</p> <p>8,5 EGUN/ DÍAS</p> <p>3,2 EGUN/ DÍAS</p> <p>31,9 EGUN/ DÍAS</p> <p>50% DEL AÑO</p> <p>1</p>	<p>Celebración el 17 de abril de la I Jornada de Osasun Eskola titulada “Remando Juntos hacia el empoderamiento en salud”.</p> <p>Organización de la jornada homenaje monitores del programa paciente bizia-paciente activo para el día 17 de diciembre.</p> <p>1.2. Programa de Detección Precoz de Cáncer de mama (PDPCM).</p> <p>1.2.1. Garantizar la calidad de los servicios sanitarios para agilizar los plazos de atención.</p> <p>Mantener los tiempos de respuesta por debajo de los tiempos establecidos como objetivo.</p> <p>Indicador: Tiempo que transcurre entre la realización de la mamografía y la emisión del Informe (en días).</p> <p>Indicador: Tiempo que transcurre entre la realización de la mamografía y la revalorización (en días).</p> <p>Indicador: Tiempo que transcurre entre la revalorización y la cita en el Hospital de Referencia (en días).</p> <p>Indicador: Tiempo que transcurre entre la cita en el hospital de referencia y el comienzo del tratamiento (en días).</p> <p>1.2.2. Garantizar la seguridad en radiodiagnóstico del PDPCM</p> <p>Asegurar el cumplimiento de los criterios del Programa de Garantía de Calidad Radiológica.</p> <p>Indicador: N. Revisiones periódicas de mamógrafos. Objetivo: 2 “trimestrales” + 2 “semestrales”.</p> <p>Realizadas 1 revisión trimestral y la correspondiente al primer semestre.</p> <p>Indicador: N. Exportaciones de dosis impartidas por cada mamógrafo del PDPCM</p> <p>Se ha realizado exportación de todos los datos de las cabeceras DICOM del año 2017 para pilotar sistema.</p> <p>1.2.3. Mantener las herramientas para captar la satisfacción de las usuarias del PDPCM.</p> <p>Continuar con actividades de la Encuesta de Satisfacción de Usuarias bienal del PDPCM.</p> <p>Indicador: Edición y Divulgación de la “ Encuesta de Satisfacción de Usuarias 2017”.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Gogobetetasun-inkesta egin da, emaitzak ezagutzera ematea falta da.</p> <p>1.2.4. Herritarren parte-hartzearen eta gardentasunaren arloetan hobetzen jarraitzea.</p> <p>Bularreko minbiziaren inguruko elkarteekin aldizkako harremanak sortzea (orain egiten den aldizkako informazio-bidalketaz gain), beharrak, iritzia eta espektatibak ezagutzeko.</p> <p>Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko bularreko minbiziaren inguruko elkarte bakoitzarekin izandako harreman kopurua/urte.</p> <p>BMGDParen webgunea eguneratzen jarraitu.</p> <p>Ohiko harremanak izaten jarraitzen da; harremanak sakontzea falta da, informazio-beharrak ezagutzeko.</p> <p>2018ko apirilean eguneratu da, 2017/12/31ko informazioarekin.</p> <p>Adierazlea: Urteko eguneratze kopurua.</p>	1	<p>Realizada la Encuesta de Satisfacción, pendiente de la divulgación de los resultados.</p> <p>1.2.4. Seguir mejorando en materia de participación ciudadana y transparencia.</p> <p>Establecer contactos periódicos con asociaciones de cáncer de mama (además del envío periódico actual de información) para conocer necesidades, opinión y expectativas.</p> <p>Indicador: Número de contactos/año con cada una de las asociaciones de cáncer de mama de Euskadi.</p> <p>Continuar con el mantenimiento actualizado de la web del PDPCM.</p> <p>Se siguen manteniendo los contactos habituales pendiente de profundizar en los mismos para conocer necesidades de información.</p> <p>Se ha actualizado en abril de 2018 con información a 31/12/2017.</p> <p>Indicador: Número de actualizaciones anuales.</p>
